

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BURGELUKO UDALA

Iruzuraren eta ustelkeriaren aurkako neurrien Burgeluko Udalaren plana

Burgeluko Udaltzakoak, 2023ko apirilaren 27an balio osoz egindako bilkura berezian, erabaki hau hartu zuen:

Lehenengoa. Iruzuraren eta ustelkeriaren aurkako politika plana eta haren eranskinak onestea. Hauxe dio, hitzez hitz:

BURGELUKO UDALAREN IRUZURAREN ETA USTELKERIAREN AURKAKO POLITIKA 2023KO APIRILA

1. Sarrera

Iruzurra eta ustelkeria fenomeno sozial, politiko eta ekonomiko konplexua dira, herrialde guztiei eragiten diena. Ustelkeriak erakunde demokratikoak ahultzen ditu, garapen ekonomikoaren erritmoa moteltzen du eta gobernua ezegonkortzen laguntzen du.

Burgeluko Udalak (aurrerantzean, "udala") zero tolerantziako konpromisoa adierazten du iruzur, ustelkeria edo eroskeria egintzat hartu daitezkeen jokabideen aurrean, bai alderdi publikoari dagokionez, bai pribatuari dagokionez; eta bere gain hartzen du iruzurraren eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko konpromisoa, modu guztietan, estortsioa eta eroskeria barne, eta baita horretarako politika zehatzak garatzeko konpromisoa ere.

Udalak bere gain hartzen du bere jardueraren eremu guztietan ustelkeriaren eta iruzurraren aurkako borrokan aktiboki parte hartzeko erantzukizuna. Eta iruzurrari eta ustelkeriari aurre egiteko konpromisoa hartzen du, udala osatzen duten pertsona guztien portaera gidatu behar duten arauak, prozedurak eta printzipioak ezarriz, eta, horregatik, udalak iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako politika hau onesten du (aurrerantzean, "politika"), iruzurraren aurkako eta ustelkeriaren aurkako erreferentzia arauemaile nagusien eta jardunbide egokiaren ildotik egin dena.

Iruzurra prebenitzeko politika honetan jasotako mekanismoek ezin dute berez bermatu ez dela egongo udalarentzat kaltegarria den egoerarik edo gertaerarik. Haren eraginkortasuna gobernu organoek zehazten duten tonu etiko edo moralaren arabera izango da, bai eta betetze kultura bat benetan transmititzearen arabera ere, udalaren eta hura osatzen duten pertsonen azken interesa islatuko duena.

Politika honi I. eranskin gisa erantsi zaio udalak irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduari buruz hartutako iruzurraren aurkako konpromiso instituzionala. Agindu horren bidez (aurrerantzean, "agindua"), Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratu zen, eta konpromisoa hartu zen iruzurra, ustelkeria eta interes gatazken kasuak oker kudeatzearen ondorioak prebenitzeko neurriak ezartzeko.

2. Politikaren helburuak

Iruzurri, eroskeriari, ustelkeriari eta interes gatazkei aurre egiteko, beharrezkoa da udalak neurrien plan bat ezartzea, haren helburuak adierazten dituen iruzurraren aurkako politika batetik abiatuta. Horregatik, politika honen xedea da iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako borrokan jokabide jarraibideak definitzea, udalak bere gain hartutako eta kode etiko batean (aurrerantzean, "kode etikoa") arautuko diren printzipio eta jokabideekin bat etorritz.

Politikaren helburua udalak iruzurrarekiko, ustelkeriarekiko, eroskeriarekiko eta interes gatazkekiko duen zero tolerantzia islatzea da, eta, horretarako, prebenitzeko, detektatzeko eta kudeaketa goiztiarrerako prozedurak arautzea eta erabakiak hartzean benetako kultura etikoa sustatzea.

Politika honek, halaber, argi eta garbi adierazten du udaleko gobernu organoaren konpromisoa eta laguntza, betetze kultura sustatzeko modu batean edo bestean bultzatzen, kudeatzen edo parte hartzen duen jarduera guztietan.

Politika honen esparruan, udal txean edo udalerako zerbitzuak ematen dituzten pertsona guztiek, edozein dela ere forma edo lotura juridiko edo instituzionala, zintzotasunez eta gardentasunez jokatu behar dute beren eginkizunak eta egitekoak betetzean eta garatzean; eta iruzur, ustelkeria edo eroskeria egintzat hartu daitezkeen jokabideak saihestu eta jazarri behar dituzte beren adierazpen guztietan, bai sektore publikoan, bai pribatuan.

Era berean, eta irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 6. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta —agindu horren bidez Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plan (BEEP) bat egituratzen da—, udalak iruzurraren aurkako neurrien plan bat egingo du, ahalbidetuko diona bermatzea eta adieraztea berari dagokion jarduera eremuan BEEPtik datozen funtsak aplikatzekoak diren arauen arabera erabili direla, bereziki, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeari, detektatzeari eta zuzentzeari dagokionez.

3. Aplikazio eremua

Politika hau nahitaez bete behar dute udalean ordaindutako eginkizunak betetzen dituztenek: (i) karrerako funtzionarioek, (ii) bitarteko funtzionarioek, (iii) langile lan kontratadunek (finkoak, mugagabeak edo aldi baterakoak) edo (iv) behin-behineko langileek, bai eta udaleko gobernu organoetako kideek ere (aurrerantzean, "hartaileak").

Udalak espero du hartaile guztiak (udalean duten posizioa, titulua edo kargua gorabehera) adi egotea eta proaktiboki informatzea iruzur, eroskeria edo ustelkeria kasu bat izan daitekeela susmatzen duten edozein jardueraren inguruan.

Era berean, udalak bere eginkizunak garatu eta gauzatzeko eta zerbitzu publikoak emateko hirugarrenen esku hartzea eta parte hartzea behar duela oinarri hartuta (besteak beste, erakunde eta instituzio publiko edo pribatu, hornitzaile, kontratista, azpikontratista edo laguntzaileena —aurrerantzean, horiek guztiek batera "hirugarrenak" izena hartuko dute, eta banaka, "hirugarrena" —), haiek politika honi atxiki beharko zaizkio, udalarekin edozein motatako harremanak izan eta mantendu ahal izateko.

Hartaileek, hirugarrenekin eta, bereziki, agintari eta erakunde publikoekin dituzten harremanetan, politika honetan jasotako iruzurraren aurkako konpromisoekin eta iruzurra, ustelkeria eta eroskeria prebenitzeko nazioko eta nazioarteko xedapenekin bat etorritik jardungo dute.

4. Iruzurraren aurkako plana

Udalak konpromisoa hartzen du neurri egokiak hartzeko, bere jardueren eremuan iruzur, ustelkeria edo eroskeria egintzak egiteko aukerak ahalik eta gehien murriztuko direla bermatu ahal izateko. Osotasunaren, gardentasunaren, objektibotasunaren eta inpartzialtasunaren printzipioak izango dira nagusi udalaren kudeaketan, eta, ondorioz, jokabide horiek prebenitzeko, detektatzeko, zuzentzeko eta jazartzeko mekanismo eta berariazko barne politikak lantzeko konpromisoa hartzen du.

Politika honen helburua da udalaren iruzurraren aurkako neurriak modu proportzionatuan egituratzea, iruzurraren aurkako zikloa deiturikoaren funtsezko lau elementuen inguruan: prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta jazarpena.

Horretarako, prebentzio neurri egokiak eta proportzionatuak hartzea aurreikusten da, egoera zehatzetara egokituak, iruzurraren hondar arriskua maila onargarri batera murrizteko, bai eta benetako iruzurrarekin edo balizkoarekin lotutako prozesuen, prozeduren eta kontrolen jarraipen mekanismoak definitzea ere.

Bereziki, iruzurraren aurkako hainbat motatako neurriak zehaztu eta aplikatuko dira EBren funtsekin zuzenean edo zeharka lotutako eta udalak sustatutako, izapidetutako eta edozein modutan kudeatutako edo partaidetutako finantzaketa eragiketa guztiei dagokienez (aurrerantzean, banaka “proiektua” esango zaie, eta batera “proiektuak”).

4.1. Arriskuaren ebaluazioa.

Udalak konpromisoa hartzen du edozein arrisku penal eragin dezaketen jarduerak identifikatzeko eta, zehazki, iruzurrarekin, ustelkeriarekin eta eroskeriarekin lotutako arriskuak identifikatzeko.

Udalak kudeatzen dituen arriskuak bere jarduerari dagozkionak eta datxezkionak dira; eta bere kudeaketa erabakiak hartzeko prozesuetan txertatzen da, bai gobernu organoen eremuan, bai bere jardueren kudeaketari eta eguneroko zerbitzuak emateari buruzkoan eta herritarren aurrean, urteko aurrekontu prozesuen eta definizio estrategikoko urte anitzeko prozesuen bitartez.

Udalak iruzurraren arriskuaren, inpaktuaren eta probabilitatearen ebaluazioa egingo du, eta aldizka, bi urtean behin edo urtean behin, berrikusiko du iruzur arriskuaren arabera; eta, nolahi ere, iruzur kasuren bat detektatu denean (dela Udalean bertan, dela beste udal batzuetako iruzur kasuen berri duenean baldin eta Udalean erreproduzitu badaitezke) edo araudian, prozeduretan edo kudeatzailetan aldaketa esanguratsuak gertatzen direnean. Ebaluazio prozesu horretan, iruzurraren, ustelkeriaren eta eroskeriaren arriskuak identifikatu, aztertu eta balioetsiko dira, helburu hauekin:

- Udalak zentzuz aurreratutako dezakeen iruzur, ustelkeria eta eroskeria arriskua identifikatzea.
- Arrisku horiekin lotutako arau hausteak edo delituak egitearen irismena, eragina eta probabilitatea aztertzea.
- Identifikatutako arriskuak aztertzea.
- Identifikatutako arriskuak baloratzea.
- Dauden kontrolen diseinuaren eta eraginkortasunaren egokitasuna baloratzea.

Udalak bere arriskuak aztertuko ditu, arlo horretako kudeaketa maila bakoitzean dauden erantzukizunak ezagutu ahal izateko dauden prozeduren arabera. Ebaluazio hori hainbat iturritan (formalak eta informalak) oinarrituta —eta Europako jardunbide onenei jarraikiz— egingo da, bai eta ezarritako prozeduren eta kontrolen eraginkortasuna egiaztatzean eta hautemandako balizko desadostasunak edo arau hausteak edozein bidetatik hautematean ere.

Arrisku horiek identifikatu ondoren, horiek gauzatzera eramanez lezaketen benetako eta balizko kausak, arrisku bakoitzerako inpaktu eremuak eta horien ondorioak zehaztuko dira, baita zein egoeratan ager litezkeen ere.

Era berean, Udalak arriskuen prebentziorako eta kontrolerako urteko plan bat onetsiko du, eta identifikatutako dituen arriskuen tratamendua definituko du, argi eta garbi zehaztuz honakoak: (i) definitutako arriskuarekiko apetituaren esposizio muga; (ii) arriskua sortzen duten eragileak, bai eta arriskua gertatzeko arrazoiak eta ondorioak ere; eta (iii) arrisku horiek prebenitzeko, detektatzeko, babesteko edo eskualdatzeko neurri eta kontrol egokiak urteko kontrol planaren barruan.

Politika honen II. eranskin gisa, Udalak betetako interes gatazka, iruzurra eta ustelkeria prebenitzeko galdetegia erantsi da, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduan xedatutakoa betez. Agindu horren bidez, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratu zen.

4.2. Iruzurraren aurkako neurriak. Iruzurraren aurkako zikloa.

Politika honek «iruzurraren aurkako zikloa» deritzonaren funtsezko lau elementuen inguruan Udalak ezarriko dituen iruzurraren aurkako neurriak egituratzen ditu: prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta jazarpena.

Iruzzurraren aurkako neurriek legez kontrako ekintza baten etapak hartu behar dituzte; eta horiek prebenitzeko eta detektatzeko arauak, prozesuak eta prozedurak barne hartuko dituzte, bai eta haiek betetzen direla kontrolatzeko sistema ere.

Udalak, legez kanpoko jokabideak egitea eragotzi edo, gutxienez, zailduko duen arriskua kudeatzeko sistema artikulatu eta sendoa ezartzeak eskatzen duen arreta eta dedikazioaren garrantziaz jabetuta, honako jarduera hauek egingo ditu:

- 1) Arriskuen analisia eta ebaluazioa.
- 2) Kode etiko bat idaztea.
- 3) Kanal etiko bat edo salaketen bat sortzea.
- 4) Salatzailea behar bezala babestuko dela bermatuko du, eta salaketa faltsuen aurrean babestuko da.
- 5) Interes gatazkak prebenitzeko politika bat idaztea.
- 6) Opari eta esku-erakutsien politika bat idaztea.
- 7) Ezarritako politikak eta arauak betetzeko eta haien jarraipena egiteko programa bat idaztea.
- 8) Prestakuntza eta kontzientziazioa iruzurraren prebentzioaren arloan.
- 9) Iruzurra Kontrolatzeko Organoa izendatzea.

Iruzurra Kontrolatzeko Organoak osotasunaren prebentziozko azterketak egin ahal izango ditu. Osotasunaren prebentziozko azterketa egin beharko zaien proiektuak modu independentean aukeratuko ditu Iruzurra Kontrolatzeko Organoak, arriskuak ebaluatzeko prozesu zorrotz baten bidez. Horretarako hautatutako proiektuak sakon aztertu behar dira, jardunbide debekatuen adierazle posibleak identifikatzeko.

Iruzurra, ustelkeria, eroskeria eta interes gatazkak behar bezala prebenitu ahal izateko, Udalak egingo duen alerta seinaleen katalogoa hartuko da kontuan, zeina Iruzzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoaren (IBEB) irizpideari eta Europako Batzordearen nazioarteko jardunbide onenei jarraituz egingo baitu.

Osotasunaren prebentziozko azterketaren helburuak honako hauek dira:

- Debeekatutako jardunbideak prebenitzen eta detektatzen laguntzea fase goiztiarrean.
- Proiektuak oinarri, zehaztapen eta baldintzen arabera gauzatu diren zehaztea.
- Udalaren funtsak aurreikusitako helburuetarako erabili direla bermatzea, eta
- Politika, prozedura eta kontroletan hobekuntzak gomendatzea, uneko eta etorkizuneko proiektuetan jardunbide debekatuak izateko aukerak mugatzeko.

Udalak kasu bakoitzean komenigarri eta egoki iritzitako neurri guztiak ezarriko ditu, bere jardueren garapenean (eta, bereziki, proiektuen eremuan hirugarrenekin dituen harremanetan) iruzurraren, ustelkeriaren edo eroskeriaren edozein zantzu, alerta edo susmo goiz detektatzeko. Horretarako, iruzur kasuak kontrolatzeko eta hautemateko sistema eta prozedura egokiak izango ditu.

Udalaren izenean edo haren onurarako jarduten duten edo jardun dezaketen edo bitartekotza egin dezaketen (edo, edozein modutan, harekin zerikusia duten) hirugarren guztien gainean, kasuan kasuko inguruabarren arabera behar bezalako arreta prozedurak aplikatu beharko dira; eta, horrela, haiek desegoki edo legez kontra jardutearen ondoriozko balizko arriskuak minimizatuko dira.

Nolanahi ere, aplikatzekoa izango da lege honetan ezarritakoa: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. Era berean, aplikatzekoa izango da Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Legean xedatutakoa.

Udaleko Ekonomia Arloa da debekatutako jardunbideak prebenitzeko eta hautemateko lehen babes ildoak, sustatzaile eta mailegu-hartzaile posibleei buruz duten ezagutza kontuan hartuta, bai eta kasuan kasuko proiektua gauzatu den inguruabarrei buruz ere; beraz, proiektu bakoitza baloratzeko prozesuan osotasunarekin zerikusia izan dezaketen arriskuak detektatzeko lehen lerroa izango da.

Hirugarrenak hautatzea.

Hirugarrena hautatzeko, arau hauek bete beharko dira, aplikatzekoa den araudiak horretarako aukera ematen duen bitartean:

- Erakundeak eskaintza eskaera bat idatziko du; eta bertan idatziz zehaztuko dira eskatutako zerbitzuaren ezaugarriak, aurrekontu argi eta homogeneoak lortzeko.

- Enpresa adjudikaziodunari esanbidezko adierazpena eskatuko zaio laneko arriskuen prebentzioari eta langileen eskubideei buruzko arauak, iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako arauak eta lehia askea babesten duten arauak betetzeari buruz.

- Hautaketa guztietan, ahal den guztietan, gutxienez bi hornitzailek hartuko dute parte (eta, ahal dela, hiruk), kasuan kasuko kontratazioarako egokien artean; betiere prezioaren, zerbitzuaren kalitatearen eta hornitzailearekiko harreman historikoaren irizpideak kontuan hartuta.

- Berariaz debekatuta dago aurrekontuak eskatzen zaizkien hornitzaileei beste eskaintza batzuei buruzko datu ekonomikoak ematea.

- Proposatutako eskaintzak lortu ondoren, gardentasun eta berdintasun printzipioak aplikatuz aztertu eta baloratuko dira.

- Egokitzen jotzen bada, jasotako eskaintzen baldintzak negoziatuko dira. Baldintzen negoziatzea (eta, bereziki, ekonomikoena) gardentasunez egingo da.

- Azkenik, eskaintzarik onentzat jotzen dena aukeratuko da.

- Hautaketa prozesuan, IBEBek eta Europako Batzordeak arlo horretan emandako gomendioei jarraituko zaie, hala nola:

- IBEB: Kontratazio publikoan iruzurra, alerta adierazleak biltzea eta jardunbide egokienak.

- 2021/C 91/01 Komunikazioa, kontratazio publikoan kolusioari aurre egiteko tresnei eta lotutako bazterketa arrazoia aplikatzeko moduari buruzko orientabideei buruzkoa.

Hirugarrena hautatzeko prozesuak behar bezala dokumentatuta egon beharko du.

Kontratazio prozesua.

Hirugarrenei eta proiektuei dagokienez formalizatu beharreko kontratuaren edukiak honako xedapen hauek bete beharko ditu:

- Idatziz jaso beharko da, eta politika honetan xedatutakoarekin bat datozen funtsezko baldintzak jaso beharko ditu.

- Argi eta garbi zehaztuko ditu erakundearen eta hirugarrenaren eskubideak eta betebeharrak, eta datu pertsonalen babesari buruzko araudian ezarritakoa bete beharko du beti.

- Erakundearen aholkularitza juridikoak kontratuak berrikusi ahal izango ditu, haien konplexutasunaren arabera.

Udalaren ordezkariak formalizatuko du kontratua, eta ordezkatzeko ahalmen nahikoak izango ditu.

Udalak neurri egokiak ezarriko ditu jarduera, zerbitzu, eragiketa, transakzio edo hitzarmen oro, mota eta izaera guztietakoak, unean-unean aplikatzekoa den indarreko araudian eta haren oinarri arautzaile, zehaztapen eta baldintzetan aurreikusitakoaren arabera gauzatu dela bermatzeko. Horrez gain, arrisku bat gauzatea dakarten kasuak behar bezala eta goiz kudeatzeko neurriak ere izango ditu.

Iruzurra Kontrolatzeko Organoak aldian-aldian parte hartuko du proiektuen betearazpenaren jarraipenean, Udalaren jardueren etengabeko jarraipenaren funtsezko zati gisa.

Udalaren betebeharrak behar bezala eta osorik betetzeari (bai eta politika honetan eta Udalaren gainerako barne araudian xedatutakoaren arabera egindako haren jarduerari ere) aplikatzekoa den legerian aurreikusitako moduan eragiten dion edo eragin diezaiokeen gora-behera edo gertaera oro berehala jakinaraziko zaie Udaleko zuzendaritza organoei.

Udalaren jardun eremuan era batera edo bestera iruzur, ustelkeria edo eroskeria kasu bat gertatzea ekar dezakeen edozein kasu gertatuz gero, berehala hasiko da aztertze, ikertze eta informazioa lortzeko prozedura, eta behar diren neurriak hartuko dira kasuan kasuko gertaeraren eragina eta tartean egon litezkeen interes publiko zein pribatuen eragina minimizatzeko; hori guztia, alde batera utzi gabe egoera hori agintari publiko eskudunei (nazionaleri edo Europakoei) eta Estatuko, autonomia erkidegoetako edo udaletako segurtasun kidegoei jakinarazteko bete-beharra, eta, beharrezkoa izanez gero, horiekin lankidetzan aritzeko bete-beharra.

Udalak neurri zuzentzaileen plan bat onartuko du arriskuen kudeaketa eta kontrol egitura berrikusteko, aldatzeko eta egokitzeko, bai eta politika honetan jasotakoarekin bat etorriz ezarritako neurriak, prozesuak eta prozedurak berrikusteko eta aldatzeko ere; hori guztia hargatik eragotzi gabe horren 14. eta 15. apartatuetan xedatutakoa.

Azken batean, Udalak honako jarduera hauek egiteko konpromisoa hartzen du:

- Udalean gobernantza ona eta hartzaileen jokabide etikoa bermatzea.
- Hartzaile guztiei prestakuntza, informazio saioak eta beste komunikazio tresna batzuk eskaintzea iruzurrak eta ustelkeriak udalarentzat eta herritarrentzat dituzten arriskuei buruz, bai eta iruzurraren aurka hartutako neurriei buruz ere.
- Iruzurra, ustelkeria eta eroskeria prebenitzeko kontrol eraginkor eta efikazak ezarri eta mantentzea.
- Iruzur edo ustelkeria egintza bat eginez gero, ikerketa arduratsua eta bidegabeko atzerape-nik gabea egiten dela ziurtatzea, kargua, zerbitzu urteak eta susmagarriak Udalarekin eta beste hartzaile batzuekin izan dezakeen harremana alde batera utzita.
- Kasu guztietan Udalaren diziplina ahalaren barruan nahitaezko diziplina neurriak hartzea, eta, hala dagokionean, legezko ekintzak abiaraztea.
- Iruzurrak edo ustelkeriak eragin ahal izan duen kalte ekonomikoa konpentsatzeko dagoz-kion ekintzak abiaraztea.
- Hala badagokio, kondenatutako hirugarrenak etorkizuneko kontratazio prozesuetatik kanpo uztea, aplikatzekoa den araudian aurreikusitako neurrian.
- Antzeko iruzur, eroskeria edo ustelkeria kasuak prebenitzeko sistemak eta prozedurak berrikustea.

5. Interes gatazkako egoerak

“Interes gatazka” dago pertsona baten eginkizunen jardun inpartziala eta objektiboa arriskuan jartzen denean bere familiarekin, bere bizitza sentimentalarekin, bere kideetasun politiko edo nazionalarekin, bere interes ekonomikoekin edo, adibidez, EBko funtsen eskatzaile batekin partekatutako beste edozein interes motarekin lotutako arrazoiengatik. Egoera horiek berandu eta modu desegokian kudeatzeak kalte nabarmenak eragin diezazkioke Udalari eta, ondorioz, gizarteari.

Udalaren interesen sustapenak Udaleko interes gatazken egoerak prebenitu behar ditu uneoro. Hartzaileek ezin dituzte inola ere beren interes pertsonalak Udalaren interesen aurretik jarri.

Politika honen ondorioetarako, aginduan aurreikusitakoa hartuko da interes gatazkatzat (ikus III. eranskina c):

“Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 Erregelamenduaren (EB, Euratom) 61. artikulua, Batasuneko aurrekontu orokorrari aplikatu dakizkiokeen finantza arauak buruzkoak (Finantza Erregelamendua), ezartzen du interes gatazka dagoela «finantza eragileek eta aurrekontua gauzatzen parte hartzen duten gainerako pertsonak, bai zuzenean, zeharka eta modu partekatuan, bai eta kudeaketan ere (prestaketa egintzetan, auditoretzan edo kontrolean barne), familiako, afektibitateko, kidesun politiko edo nazionalako, interes ekonomikoko edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako beste edozein arazoirengatik beren eginkizunak inpartzialki eta objektiboki betetzea arriskuan ikusten dutenean».

Gainera, kontuan izan behar da interes gatazkaren irismena:

i. EBko erakunde guztietako administrazio eta eragiketa partida guztiei eta kudeaketa metodo guztiei aplikatu dakieke.

ii. Edozein interes pertsonal (zuzena edo zeharkakoa) estaltzen du.

iii. Balizko interes gatazkatzat «jotzen» den edozein egoeratan jardun behar da.

iv. Agintari nazionalak, edozein mailatakoak izanik ere, balizko interes gatazka saihestu edota kudeatu behar dituzte.

Era berean, eta interes gatazka batean inplikaturik egon daitezkeen eragileei dagokienez:

i. Kudeaketa, kontrol eta ordainketa egitekoak egiten dituzten enplegatu publikoak, eta eginkizun horietako bat/batzuk eskuordetu zai(zki) en beste agente batzuk.

ii. Onuradun pribatuak, bazkideak, kontratistak eta azpikontratistak; baldin eta haien jarduerak funtsekin finantzatzen badira, eta beren interesen alde egin badezakete, baina EBren finantza interesen aurka, interes gatazkaren esparruan.

Azkenik, eta interes gatazka eragingo lukeen egoera kontuan hartuta, honako hauek bereiz daitezke:

i. Itxurazko interes gatazka: enplegatu publiko edo onuradun baten interes pribatuak bere eginkizunen edo betebeharren egikaritzea objektiboa arriskuan jar dezaketenean, baina, azkenik, pertsonaren jokabidearen, portaeraren edo harremanen alderdi zehatzekiko (edo alderdi horietan izandako ondorio batekiko) lotura identifikagarri eta indibidualik aurkitzen ez denean.

ii. Balizko interes gatazka: enplegatu publiko edo onuradun batek interes pribatuak dituztenean eta interes horiek interes gatazka sor dezaketenean sortzen da, etorkizunean erantzukizun ofizial jakin batzuk bere gain hartu behar badituzte.

iii. Interes gatazka erreala: enplegatu publiko baten betebeharrak publikoaren eta interes pribatuen arteko gatazka dakar, edo enplegatu publikoak bere betebeharrak eta erantzukizun ofizialak betetzean modu bidegabean eragin dezaketen interes pertsonalak dituztenean.

Onuradun baten kasuan, gatazka sortuko litzateke funtsen laguntza eskatzean hartutako betebeharrak eta horien interes pribatuen artean, horiek modu bidegabean eragin baitezakete betebeharrak horiek betetzean.

Udalak bere jarduerak garatuko du hartzailerik guztien eskubide eta interes legitimoak babestuz eta uneoro tratatu berdintasuna errespetatuz eta diskriminazio mota oro saihestuz.

Hartzailerik inpartzialki eta profesionalki jardungo dute uneoro, politika honen esparruan balizko interes gatazka ekar dezakeen edozein eragiketari dagokionez. Horrez gain, ezin izango dute, inola ere, Udalarekin duten harremanetik ez onurarik atera, ez aipamenik egin, ez eta edozein modutan probetxurik atera ere, besteren edo kanpoko interesak, negozioenak edo bestelakoak sustatzeko, edo gertuko edo hurbileko lagun edo familiakoen onurarako.

Udalak berarekin edozein motatako harremana izango duten hirugarren guztiei eskatuko die politika honi III. eranskin gisa erantsi zaion Interes gatazkarik ezaren adierazpenaren (IGEA) eredia betetzeko.

Hartzaile guztiak behartuta daude proaktiboki adieraztera norberaren edo besteren eta benetako edo balizko edozein interes gatazka dagoela, egoeraren berri izaten den unetik; hierarkian gorago dagoenari berehala informazioa emanez eta Iruzurra Kontrolatzeko Organoarekin harremanetan jarriz, horri buruzko erabakia ebaluatu, interpretatu eta har dezan, behar diren kontrol neurriak proposa ditzan eta egoera horien erregistroa egin dezan.

Zehazki, Udalak honako neurri hauek hartuko ditu:

1. Interes gatazka prebenitzeko neurriak.

A. Erakundeko langileei interes gatazkaren modalitateen eta hori saihesteko moduen berri ematea eta horren inguruko informazioa ematea.

B. Prozeduretan parte hartzen dutenei interes gatazkarik ezaren adierazpena (IGEA) betetzea (nolanahi ere, kontratazio organoaren/dirulaguntza ematearen arduraduna, lizitazioen/oinarrien edota deialdien dokumentuak idazten dituzten langileak, eskaerak/eskaintzak/proposamenak ebaluatzen dituzten adituak, eskaerak/eskaintzak/proposamenak ebaluatzeko batzordeetako kideak eta prozedurako gainerako kide anitzeko organoak).

Kide anitzeko organoen kasuan, adierazpen hori dagokion bileraren hasieran egin dezakete bileran parte hartzen duten guztiek, eta aktan jaso beharko da.

Era berean, IGEA betetzea ezartzea laguntza emateko baldintzen barruan balizko interes gatazka duten jarduerak egin behar dituzten onuradunek aurkeztu beharreko baldintza gisa.

C. Informazioa egiaztatzea merkataritza erregistroetako datu baseen bidez, estatuko eta EBko erakundeen datu baseen bidez, langileen espedienteen bidez (datuak babesteko arauak kontuan hartuta), edo datuak aztertzeke tresnak erabiliz («data mining») edo arriskuen puntuazioaren bidez (ARACHNE).

D. Dagokion barne araudia zorrotz aplikatzea (estatuko, autonomia erkidegoko edo tokiko araudia). Bereziki: urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 53. artikulua, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena, printzipio etikoei buruzkoa; Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua, abstentzioari buruzkoa; eta 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.

2. Egon daitezkeen interes gatazkei aurre egiteko neurriak.

A. Interes gatazka bat egoteak ekar lezakeen egoeraren berri ematea hierarkian gorago dagoenari, eta idatziz berretsiko du gatazka hori dagoela uste badu. Interes gatazka dagoela uste denean, izendapenak egiteko ahalmena duen agintaritzak edo dagokion agintari nazionalak zainduko du dena delako pertsonak gai horretako jarduera oro bertan behera uzten duela; eta beste edozein neurri gehigarri hartu ahal izango du, aplikatzekoa den zuzenbidearen arabera.

B. Dagokion barne araudia zorrotz aplikatzea (estatuko, autonomia erkidegoko edo tokiko araudia). Bereziki: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24.a, errekusazioari buruzkoa; eta abenduaren 9ko 19/2013 Legea, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.

Hartzaileek interes gatazka bat ikusten badute, erreala zein balizkoa, arau hauen arabera jokatu beharko da:

- Interes gatazkak ukitutako pertsonak modu proaktibo eta gardenean deklaratu dute interes gatazka posible oro.
- Interes gatazkak ukitutako pertsonak ez dute informazio konfidentziala eskuratuko.

- Interes gatazkak ukitutako pertsonak abstenitu egingo dira eztabaidetan eta erabakiak hartzean.

- Interes gatazkak ukitutako pertsonak interes gatazkak ebatzen lagunduko dute.

- Interes gatazkan dauden gobernu organoko kideek berehala jakinarazi beharko diete egoera hori organoko gainerako kideei eta Iruzurra Kontrolatzeko Organoari.

6. Beste funtzionario eta agintari publiko batzuekiko harremana

Funtzionarioekiko eta agintari publikoekiko harremanak gardentasunaren, osotasunaren, objektibotasunaren, inpartzialtasunaren eta legezotasunaren printzipioetan oinarritu behar du.

Nolanahi ere, funtzionarioekin eta agintari publikoekin dugun tratuan, jarduteko jarraibide orokor hauek bete beharko ditugu:

- Kode etikoan jasotako balioak, printzipioak eta jokabide arauak betetzea.

- Interes gatazkarik izanez gero, funtzionario edo agintari publikoekin jardun edo tratatzetik abstenitzea.

- Administrazio publikoei emandako informazioaren egiazkotasuna eta osotasuna gainbegiratzea eta egiaztatzea.

- Horretarako izendatutako pertsonak sektore publikoarekin trukaturako dokumentazio guztia behar bezala kontserbatzea eta zaintzea.

7. Oparien eta arreten politika

Hartzaileek hirugarrenen edozein interferentzia edo eragin saihestuko dute, haien inpartzialtasuna, osotasuna eta objektibotasun profesionala alda badezakete.

Hartzaileek ezin izango dute onartu, ez zuzenean, ez zeharka, opari edo onura pertsonalik, ordainketarik, komisiorik edo beste edozein onurarik beren jardun profesionalaren eremuan, ez hirugarrenekin duten harremanean, ez eta Udalarekin edo haien kontura diharduenarekin inolako harremanik izan nahi dutenekin ere; baldin eta harreman komertzial, profesional edo administratiboetan, publiko zein pribatuetan, modu desegokian eragiteko helburua badute.

Era berean, hartzaileek ezin dute hirugarrenen oparirik, ordainketarik, komisiorik edo beste edozein onura pertsonalik eskatu edo onartu, ezta Udalarekin harremana ezarri nahi dutenen edo haien kontura dihardutenen aldetik ere.

Politika honen ondorioetarako, eta adierazpen ondorioetarako soilik, opari edo onura pertsonaltzat hartuko dira opari, ondasun, zerbitzu, edozein motatako ikuskizunetarako edo ekitaldietarako sarrera, bidaia, lehentasunezko tratu eta deskontu berezi guztiak edo hartzaileei eskaintzen, agintzen edo ematen zaien beste edozein arreta.

Mintegietara eta prestakuntzakoak baino ez diren jardueretara joatea, bai eta bazkari edo gosari informatiboetara ere, ez dira onura pertsonaltzat hartuko, salbu eta, haien kostua, lekua, testuingurua edo prestazio osagarriak direla-eta, helburu horretarako neurritz kanpokoak badira.

8. Gastuak

Udalak beti eta uneoro jardungo du austeritate eta proportzionaltasun irizpideen arabera; irizpide horiek gidatu behar dute, gainera, hartzaileen jokabidea.

Hartzaileek beren eginkizunak betetzearekin eta Udalaren izenean eta ordezkartzan jarduerak garatzearekin zerikusia duen edozein gastu behar bezala justifikatu beharko da, kasu bakoitzaren inguruabar zehatzen arabera, eta behar bezala dokumentatu beharko da.

Ondorioz, baztertu egingo dira eta ez dira onetsiko behar bezala justifikatuta ez dauden edo politika honetan jasotako printzipioetara egokitzen ez diren otorduen eta joan-etorrien gastuak.

Mantenuetik eta joan-etorrietatik eratorritako gastuen tratamendua Udalean indarrean dagoen gastuen kontrol prozeduran xedaturakoaren arabera arautuko da.

9. Kontabilitate erregistroak

Udalak, bere jardunak gidatu behar dituen gardentasun printzipioaren ildotik, kontabilitateko barne kontrolerako sistema egoki bat izango du, Udalaren izenean eta haren kontura egindako transakzio guztien berri eman eta horiek modu fidelean islatuko dituen; hori guztia aplikatzekoa den araudiaren arabera.

Udalaren kontabilitate liburu eta erregistroek zehatzak eta xehatuak izan beharko dute, eta erabat debekatuta egongo da eragiketa adierazpen faltsuak edo engainagarriak adieraztea.

Ildo horretan, dokumentazio zehatza, egokia eta arrazoizko xehetasunarekin mantendu beharko da egindako transakzio guztiei estaldura emateko; eta informazioa kudeatzeari buruzko barne politiken arabera zainduko da.

Nolanahi ere, eta bestelako inguruabarrak ukatu gabe, erabat debekatuta daude honako jokabide hauek:

- Erregistratu gabeko kontuak ezartzea.
- Eragiketak egitea, liburuetan ez erregistratzeko edo modu desegokian erregistratzeko.
- Existitzen ez diren gastuen erregistroa.
- Gastuen idazpena, haien izaera oker adierazita.
- Dokumentu faltsuak erabiltzea.
- Kontabilitate agiriak nahita suntsitzea legean aurreikusitako epea baino lehen.

10. Estatu laguntzak eta kolusio arriskua

Udalak, BEEP gauzatzen parte hartzen duen erakundea den aldetik, prozedurak aplikatuko ditu, Estatuko laguntzei eta lehia askeari buruzko araudia uneoro erabat errespetatzen dela bermatzeko, bai eta finantzaketa bikoitzik ez dagoela bermatzeko ere.

Horretarako, autoebaluazio bat egingo du, Estatuko laguntzen erregimenarekiko bateragarritasunari eta finantzaketa bikoitzaren prebentzioari buruz.

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu (EBFT) 107. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, estatu laguntzat jotzen da estatuek edo estatuko funtsen bidez emandako edozein laguntza, edozein modutan, lehia faltsutu edo faltsutzeko mehatxua egiten duena, enpresa edo ekoizpen jakin batzuei mesede eginez.

Bestalde, EBFTren 101. eta 102. artikuluek debekatu egiten dute lehia askea faltsutu edo mugatzen duen eragile ekonomiko batek aldeaniztun edo aldebakarreko edozein jokabide izatea. Udalak printzipio horiek errespetatu beharko ditu uneoro, EBFTan, Lehia Defendatzeko Legean eta Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezarritakoaren arabera.

Jarraitu beharreko irizpideak estatu laguntzen eta lehia askearen politikan zehaztuko dira.

Arau horiek ez betetzea ekar dezakeen edozein kasu hautemanez gero, Udalak prozesua geldiaraziko du eta agintari eskudunei jakinaraziko die Europako Batzordeak arlo horretan emandako gomendioei jarraituz.

11. Iruzurra Kontrolatzeko Organoa

Aginduan jasotakoa betez, Udalak Iruzurra Kontrolatzeko Organo bat izendatu du iruzur kasu susmagarriak aztertzeko eta haien jarraipena egiteko eta EBko funtsak berreskuratzeko prozesu egokiak ezarri eta garatzeko.

Udalaren Iruzurra Kontrolatzeko Organoa pertsona bakarreko organoa da.

Iruzurra Kontrolatzeko Organoak independentziaz eta inpartzialtasunez jardun beharko du, eta bere lana ahalik eta ardura eta gaitasun profesional handienaz gauzatu. Horretarako, Iruzurra

Kontrolatzeko Organoak bere eginkizunak betetzeko behar duen informazio eta dokumentazio guztia bildu ahal izango du Udaleko sail eta prozesu bakoitzetik, eskatutako pertsonaren maila hierarkikoa edozein dela ere.

Iruzurra Kontrolatzeko Organoak honako eginkizun hauek izango ditu:

- Politika honen garapena, ezarpena, funtzionamendua, eraginkortasuna eta betetzea zuzentzea eta gainbegiratzea.
- Iruzurrezko egintza eta jokabideak egitearekiko "zero tolerantzia" printzipioan oinarritutako prebentzio kultura sustatzea.
- Arriskuen mapa baten prestaketa zuzentzea, bai eta zaintza eta kontrol planak eta prozedurak ere.
- Udalaren barruan iruzurra, ustelkeria eta eroskeria egitea prebenitzeko arau eta barne kontrol egokiak onestea proposatzea.
- Hautemandako arriskuen eta haietako bakoitzari aplikatu dakizkiokeen kontrolen aldizkako ebaluazioa egitea.
- Politika hau modu loteslean interpretatzea, bai eta haren edukari, aplikazioari edo betetzeari buruz egiten dioten edozein kontsulta edo zalantza ebaztea ere.
- Salaketan kanala kudeatzea, eta horrekin lotuta egindako jarduketak guztien erregistroa egitea, sistemaren funtzionamendua azkar frogatzea eta gerta daitezkeen erroreak hautematea ahalbidetuko duen dokumentuak kudeatzeko sistema baten bidez.
- Iruzurrezko jokabidea izan daitekeen edozein gertakariren inguruan egiten diren barne ikerketak hastea eta zuzentzea, eta organo eskudunei dagozkion zehapenak ezartzea proposatzea.
- Politika honetan komeni diren aldaketak proposatzea.

Iruzurra Kontrolatzeko Organoak hirugarrenen laguntza eta aholkularitza eskatu ahal izango du, bere eginkizunak behar bezala betetzeko beharrezkoa edo komenigarria dela uste duenean; eta ekimen askatasuna izango du, ikerketa bat hasi ahal izateko aurretiazko salaketarik edo goragoko baten agindurik egon behar izan gabe, betiere, edozein inguruabar dela-eta egoki baderitzo.

Iruzurra Kontrolatzeko Organoak isilpean gordeko ditu bere eztabaidak eta erabakiak; eta, oro har, ez ditu ezagutaraziko bere karguan diharduela eskura dituen informazio, datu, txosten edo aurrekariak, ez eta bere edo hirugarrenen onurarako erabiliko ere.

Iruzurra Kontrolatzeko Organoaren konfidentzialtasun betebeharrak bere horretan iraungo du kargua utzi badu ere.

Iruzurra Kontrolatzeko Organoa balizko interes gatazka batean baldin badago, horren berri eman beharko dio gobernu organoari, eta hark izango du horren inguruan sor daitezkeen zalantzak edo gatazkak ebazteko eskumena.

12. Salaketak eta kontsultak

Jokabide txarraren, iruzurraren, ustelkeriaren edo beste edozein urraketa etikoren edozein susmo modu konfidentzial eta babestuan jakinarazteko aukera bermatzen du udalak. Horretarako, udalak konpromisoa hartzen du kanal etiko bat ezartzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko urriaren 23ko Batasuneko Zuzenbidearen arau hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesari buruzko 2019/1937 (EB) Zuzentarauan jasotakoa errespetatuz.

Iruzurrezko egintzak edo ustelkeriazkoak gertatu direla pentsatzeko arrazoizko oinarria duen pertsona orok berehala eman behar du egintza susmagarriaren berri. Lehenbailehen eman behar da edozein gorabeheraren berri.

Hartzaileek politika hau ez betetzea edo urratzea eragin dezaketen egintza edo egitate guztien berri eman behar dute, baldin eta horien berri badute edo horrelakoen susmorik badute.

Era berean, hartzailleek politika osatzen duten arauari eta printzipioei buruzko kontsultak bidali ahal izango dituzte kanal etikoaren bidez, baita, zehatz-mehatz ez bada ere, haren irismenari, aginduen interpretazioari edo kasu jakin bati aplikatzeari buruzko zalantzak ere (aurrerantzean, "kontsultak").

Salaketak eta kontsultak helbide elektronikoko honen bidez bidali beharko dira: "[canaletico](mailto:canaletico@Elburgo.eus)"@[Elburgo.eus](mailto:canaletico@Elburgo.eus).

Iruzurra Kontrolatzeko Organoa arduratuko da salaketak eta kontsultak kanal etikoaren protokoloaren arabera izapidetzeaz. Iruzurra Kontrolatzeko Organoak esku hartzen badu, jakinarazpena udaleko ekonomia arloari bidaliko zaio.

Salaketa faltsuak egin edota iruzurrezko edo ustelkeriazko jardueren susmoak ezarritako prozeduren arabera behar bezala salatu ezean, diziplina neurriak edo bestelakoak ezarriko dira, salaketa egiten duen pertsonari eta udalarekin duen harremanari erreparatuta kasu bakoitzean dagokionaren arabera.

Ez dira onartuko ustezko iruzurrezko jarduerak edo ustelkeriazko jarduerak salatzeagatiko errepresaliak eta zigorra, eta edozein salatzailek udalaren laguntza eta babeserako eskubidea izango du, edozein errepresalia mota saihesteko.

13. Politika ez betetzea

Hemen ezarritakoa betetzea hartzaille guzti-guztien erantzukizuna da. Politika honetan jasotako edozein xedapen ez betetzeak dagozkion neurriak hartzea ekarriko du, indarrean dagoen diziplina arloko eta bestelako lan legediaren arabera, kasu bakoitzean dagokionaren arabera.

Politika honen ondorioetarako, "irregulartasuntzat" hartuko dira honakoak: (i) Udalaren jarduerari aplikatu dakioken araudiaren eta legediaren ez-betetze oro, arau hauste penala barne; bai eta (ii) politika hau osatzen duen edozein arau ez betetzea ere.

Irregulartasunak proiektu bati eragiten badio, bidegabe erabilitako funtsak berreskuratzeko beharrezkoak diren lege neurri guztiak hartuko ditu Udalak.

14. Ez-betetzearen ikerketa

Iruzurra Kontrolatzeko Organoa arduratuko da salaketak eta kontsultak jasotzeaz, eta politika honetan adierazitakoarekin bat etorriko dagoen izapidetzea emango die.

Iruzurra Kontrolatzeko Organoa arduratuko da irregulartasunari buruzko gertakariak ikertzen hasteaz eta dagokion espedientea izapidetzeaz.

Iruzurra Kontrolatzeko Organoa zuzenean edo zeharka (hirugarrenen bidez) irregulartasunaren inplikaturik badago, organo horrek ezin izango du parte hartu hura izapidetzen edo harekin lotutako alderdiren bat lantzen duten bileretan. Informazio guztia Udaleko gobernu organoaren esku jarriko da; eta organo hori une horretatik aurrera hura izapidetzeaz arduratu beharko da, eta hirugarrenengana jo ahal izango du horretarako.

Iruzurra Kontrolatzeko Organoak irregulartasunaren egiazotasuna eta zehaztasuna egiaztatuko ditu, entzunaldiko izapidea emango die ukitutako eta lekuko guztiei, eta beharrezko jotzen dituen eginbide guztiak egingo ditu. Hartzaille guztiak behartuta daude ikerketan leialki laguntzera. Lekukoen eta ukitutakoen esku-hartzea isilpekoa izango da erabat.

Espedientearen izapidetzea amaituta, Iruzurra Kontrolatzeko Organoak egokitzen jotzen duena ebatziko du.

Emandako ebazpenak ondorioztatzen badu hartzaille batek (Udalarekin duen harremanaren izaera gorabehera) irregulartasun bat egin duela, Iruzurra Kontrolatzeko Organoak giza baliabideen arduradunari edo dagozkion diziplina neurriak aplikatzeko eskumena duenari helaraziko dio, eta haiek hartu direla eta haien edukiaren berri emango diote Iruzurra Kontrolatzeko Organoari.

Emandako ebazpenak ondorioztatzen badu hirugarren batek irregulartasunen bat egin duela, Gainbegiratze Organoak Lege Arloari helaraziko dio, dagozkion kontratu eskubideak erabil ditzan, eta horren berri emango dio Iruzurra Kontrolatzeko Organoari.

Espedientearen ondorioz agerian geratzen bada legezko jarduketak egin behar direla, Iruzurra Kontrolatzeko Organoak zerbitzu juridikoei helaraziko dizkie jarduketak, kasuan kasuko jarduketa administratibo edo judizialak hasteko.

Apartatu honetan jasotako ondorioez eta proiektu bat abian jarri eta lizitatzean berariaz aurreikusitako beste batzuez gain, egiaztatzen bada proiektu jakin bati lotutako hirugarren batek debekatutako jardunbideren bat egin duela kontratazio publikoko prozedura batean edo politika honetan jasotakoarekin bat etorritz proiektu bat gauzatzean, Udalak aukera hauek ditu:

- Debekatutako jardunbidea behar bezala eta berehala nahi duen erara zuzentzeko eskatzea.
- Ukitutako (halakorik bada) EBko funtsak itzultzeko eskatzea.
- Hirugarren hori Udalarekin zerikusia duten kontratuak adjudikatzeko hautagarria ez dela deklaratzeko.
- Udalak kontratu bat emateko eragozpenik ez duelako deklarazioa ukatzea eta kontratu neurri egokiak aplikatzea, hala nola etetea eta baliogabetzea.
- Hirugarrenekin egindako eta proiektuekin lotutako kontratuak Udalak ebatzi ahal izango ditu, honako inguruabar hauetakoren bat gertatzen bada:
 - ** Hirugarren batek deskribatutako kontrolak aplikatzeari uko egitea, aurka egitea edo hura oztopatzea.
 - ** Hirugarrenak aplikatzekoak diren baldintza agirian edo oinarri arautzaileetan araututako funtsezko baldintzetako edozein ez betetzea.

15. Berrikustea eta eguneratzea

Politika hau udalbatzak onesten duen egunean jarriko da indarrean, eta baliogabetzea edo aldatzea onesten ez den bitartean egongo da indarrean. Politika hau Iruzurra Kontrolatzeko Organoak berrikusiko du, behar den gutztietan eta gutxienez urtean behin.

Politika honen aldaketa eta eguneratze bakoitzaren behin betiko onespenez udalbatzak onetsi beharko ditu.

16. Datu pertsonalen babesa

Politika honen esparruan bildutako datuak hertsiki eta objektiboki beharrezkoak direnak izango dira jasotako salaketak eta kontsultak kudeatu, izapidetu eta haiei erantzuna emateko, eta, hala badagokio, irregulartasunak ikertzeko.

Datu horiek helburu horretarako bakarrik tratatuko dira, eta ez dira helburu bateraezinetarako erabiliko.

Udalak beharrezko neurri teknikoak eta antolaketa neurriak hartu ditu, politika honen esparruan tratatutako datuen beharrezko segurtasuna eta konfidentziasuna bermatzeko.

Salaketa baten ikerketaren testuinguruan biltzen den informazioa gobernu organoari edo giza baliabideen arduradunari jakinarazi ahal izango zaio, dagokion salaketa izapidetzeko edo bidezkoak diren diziplina edo kontratu zehapenak ezartzeko helburu soilarekin. Halaber, informazio hori agintari judizialei jakinarazi ahal izango zaie, agintari judizialek hala eskatzen dutenean edo salatutako egitateak ez-zilegitasun penala direnean.

17. Prestakuntza

Udalak prestakuntza ekintzak antolatuko ditu hartzaileentzat, iruzurra, ustelkeria, eroskeria eta interes gatazkak prebenitzeari dagokionez. Gainera, beren ezaugarriak direla eta, iruzurrarekin, ustelkeriarekin, eroskeriarekin, kapitalak zurtzearekin eta terrorismoaren finantzaketarekin zerikusia izan dezaketen gertaerak edo eragiketak detektatzeko egokiak diren lanpostuetan diharduten langileei berariaz zuzendutako ikastaroak ematea sustatuko du, eta pertsona horiek horretarako trebatuko ditu.

I. ERANSKINA. BURGELUKO UDALAREN IRUZURRAREN AURKAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

2020ko uztailaren 21ean, Kontseilu Europarrak aldi baterako errekupeziarako ezohiko tresna bat adostu zuen, "Next Generation EU" izenekoak, 750.000 milioi eurokoa, estatu kideekin koordinatutako Europako erantzun bat bermatzeko, COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko.

Next Generation EUren barruan bolumen handieneko tresnetako bat Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa (BEM) da, 672.500 milioi eurokoa. BEMen helburuen garapenaren funtsezko atal moduan, joan zen irailaren 30ean irailaren 29ko HFP/1030/2021 Agindua argitaratu zen BOEn. Agindu horren bitartez, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plan bat egituratzen da (BEEP), eta, horren arabera, administrazio publikoek askotariko neurriak hartu behar dituzte. Besteak beste, kudeaketa prozeduren eta kontrol ereduaren egokitzapena dago, eta, horrekin batera, BEEPen ezarritako neurriak (erreformak/inbertsioak) xehatzen dituzten proiektuak definitu, planifikatu, gauzatu, jarraitu eta kontrolatzera bideratutako kudeaketa sistema baten taxuketa eta garapena.

Bestalde, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 241/2021 (EB) Erregelamenduaren 22. artikulua betebeharrak jakin batzuk ezartzen dizkio Espainiako Estatuari EBren finantza interesak babesteari dagokionez; eta, horretarako, iruzurraren aurkako neurrien plan bat egituratzeko betebeharrak ezartzen du, EBren finantza interesak babesteko helburuarekin.

Betebeharrak hori betetze aldera, aginduaren 6. artikulua ("Iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeko, hautemateko eta zuzentzeko mekanismoak indartzea") arabera, BEEPko neurrien betebeharraren parte hartzen duen erakunde erabakitzaile edo betebeharraren orok iruzurraren aurkako neurrien plan bat izan beharko du, honako hau bermatu eta deklaratu ahal izateko: dagokion jarduketaren eremuan, dagokion funtsak aplikatzekoak diren arauen arabera erabili direla (bereziki iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitu, hauteman eta zuzentzeko dagokionez).

"Iruzurra" hitzak hau adierazi nahi du: engainuaz baliatzea erakunde publiko batekin loturiko pertsona batentzat edo hirugarren batentzat irabazi pertsonalak edo beste pertsona batentzako galerak lortzeko. "Ustelkeria" botere abusua da irabazi pertsonalak lortzeko.

"Interes gatazka" dago pertsona baten eginkizunen jardun inpartziala eta objektiboa arriskuan jartzen denean bere familiarekin, bere bizitza sentimentalekin, bere kidesun politiko edo nazionalekin, bere interes ekonomikoekin edo, adibidez, EBko funtsen eskatzaile batekin partekatutako beste edozein interes motarekin lotutako arazoengatik.

Iruzurrak, ustelkeriak eta interes gatazkaren kasuak oker kudeatzeak finantza ondorioak izateaz gain, kalte larria egiten diote baliabide publikoen eta, beraz, EBko funtsen kudeaketa eraginkor eta efizienteaz arduratzen den erakundearen ospeari.

Burgeluko Udalak iruzurra eta ustelkeria erabat arbuiatzen ditu. Kalitate juridiko, etiko eta moral handia mantentzeko konpromisoa hartzen du; baita osotasunaren, inpartzialtasunaren, gardentasunaren eta zintotasunaren printzipioen arabera jarduteko konpromisoa ere. Gainera, bere eginkizunetan iruzurraren eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko konpromisoa berretsi du, eta interes gatazkak garaiz eta behar bezala kudeatzeko asmoa adierazi du.

Burgeluko Udalak iruzurraren aurkako politika bat onetsi du, betetze kultura bat sustatzeko, iruzurrezko edozein jardueratarako disuasio efektua izango duena eta hura prebenitu, detektatu, zuzendu eta jazartzea ahalbidetuko duena modu proportzionatuan, eraginkorrean, egokian eta denboran doitu.

Horrez gain, Burgeluko Udalak konpromisoa hartzen du kudeaketa prozedurak eta kontrol eredu bat hartzeko, EBko funtsak lortzeko eta bideratzeko espedienteen estandar etiko onenekin bat datorren izapidetze eraginkorra ziurtatuko duena, BEEPn aurreikusitako helburuak bete ditzan. Horren ondorioz, Burgeluko Udalak 2023ko abenduaren 31 baino lehen iruzurraren aurkako neurri plan bat onesteko konpromiso instituzionala hartu du.

Zehazki, konpromisoa hartzen du, besteak beste, honako ekintza hauek egiteko epe horren barruan:

1. Arriskuen analisia eta ebaluazioa.
2. Kode etiko bat idaztea.
3. Kanal etikoaren protokolo bat idaztea.
4. Interes gatazkak prebenitzeko politika bat idaztea.
5. Opari eta esku-erakutsien politika bat idaztea.
6. Prestakuntza eta kontzientziak iruzurraren prebentzioaren arloan.
7. Iruzurra Kontrolatzeko Organoa izendatzea.

Burgeluko Udalak jakinarazpenetarako barne kanalen bidez hauteman daitezkeen irregulartasunak edo iruzurraren eta ustelkeriaren susmoak salatuko ditu; eta elkarlanean arituko da iruzurraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalarekin eta gainerako agintari eta erakunde publikoekin eta Estatuko, autonomia erkidegoetako edo foru aldundietako segurtasun kidegoekin uneoro.

II. ERANSKINA. INTERES GATAZKARI ETA IRUZURRAREN ZEIN USTELKERIAREN PREBENTZIOARI BURUZKO TESTA

GALDERA	BETETZE MAILA			
	4	3	2	1
1. Badago iruzurraren aurkako neurrien planik, erakunde betearazleak edo erakunde erabakitzaileak bermatu eta deklaratu ahal izateko, dagozkion jarduera eremuan, dagozkion funtsak aplikatu beharreko arauen arabera erabili direla, bereziki, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzentzeari dagokienez?				
2. Egiaztatu al da "Iruzurraren aurkako neurrien plana" dagoela betearazpen maila guztietan?				
PREBENTZIOA				
3. Ba al du iruzurraren aurka borrokatzeko konpromisoa hartzen duen adierazpenik, maila gorenean?				
4. Autoebaluazio bat egiten al da arrisku espezifikoak, haien inpaktua eta haien gertatzeko probabilitatea identifikatzeko eta berrikusten al da aldikak?				
5. Kode etiko bat zabaltzen da eta opari politikari buruzko informazioa ematen da?				
6. Etika publikoa sustatzen duen eta iruzurra detektatzea errazten duen prestakuntzarik ematen al da?				
7. Interes gatazkak tratatzeko prozedurarik egin al da?				
8. Bete al dute esku hartzen duten guztiek interes gatazkarik ez dagoela dioen adierazpena?				
DETEKZIOA				
9. Zehaztu al dira iruzur adierazleak edo alerta seinaleak (bandera gorriak) eta jakinarazi al zaizkie haien detektatzeko moduan dauden langileei?				
10. Datuak aztertzeke edo arriskuak puntuatzeko tresnak erabiltzen dira?				
11. Ba al dago interesdunen batek salaketak aurkeztu ahal izateko biderik?				
12. Ba al dago salaketak aztertzeaz eta neurriak proposatzeaz arduratzen den unitaterik?				
ZUZENKETA				
13. Iruzurraren eragina ebaluatzen da eta sistemikotzat edo unean unekotzat jotzen da?				
14. Iruzurrak eragindako proiektuak edo horien zatiak kendu dira horiek BEMk finantzatu ditueneko edo finantzatu behar ditueneko?				

GALDERA	BETETZE MAILA			
	4	3	2	1
JAZARPENA				
15. Gertatutakoak eta hartutako neurriak jakinarazten al zaizkie erakunde betearazleari, erakunde erabakitzaileari edo agintaritza arduradunari, dagokionaren arabera?				
16. Hala dagokionean, estatueta edo Europar Batasuneko agintari publikoen edo fiskaltza eta auzitegi eskudunen aurrean zigortzeko moduko egitateak salatzen al dira?				
Guztizko partziala				
Puntuak, guztira				
Gehieneko puntuak			64	
Puntu erlatiboak (guztizko puntuak/gehieneko puntuak)				

III. ERANSKINA. IGEA EREDUA

ESPEDIENTEA	
KONTRATUA	
IZEN-ABIZENAK	
IFZ	
KARGUA	

Goian aipatutako prozeduran inpartzialtasuna bermatzeko, behean sinatzen duenak, espedientea prestatzeko eta izapidetzeko prozesuan parte hartzen duen aldetik, honako hau adierazten du:

Lehenengoa. Honako honen jakitun dagoela:

1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduak (EBren Finantza Erregelamendua) 61.3 artikuluan ("Interes gatazka") ezartzen duenez, «interes gatazka egongo da familiako, afektibitateko, kidesun politiko edo nazionalako, interes ekonomikoko edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako edozein arrazoirengatik eginkizunak inpartzialki eta objektiboki betetzea arriskuan dagoenean.»

2. Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 64. artikulua ("Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes gatazken prebentzioa") helburua da lehia ez desitxuratzea, prozeduran gardentasuna bermatzea eta hautagai eta lizitatzailerak guztiei tratu berdintasuna bermatzea.

3. 2023rako Estatu Aurrekontu Orokorre buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuak honako hau ezartzen du: «Interes gatazkaren arriskuaren analisi sistematiko eta automatizatu aplikatuko zaie erakunde erabakitzaileen, betearazleen eta instrumentalen zerbitzura dauden enplegatu publikoei eta gainerako langileei, baldin eta banaka edo kide anitzeko organoetako kide gisa parte hartzen badute deskribatutako prozeduretan, kontratuak adjudikatzeko edo dirulaguntzak emateko prozeduretan».

4. Aipatutako ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriaren 4. apartatuak honako hau ezartzen du:

– «Tresna informatikoaren bidez, familia harreman edo sozietate lotura zuzenak edo zeharkakoak aztertuko dira, hain zuzen, aurreko apartatuan aipatzen diren pertsonen eta prozedura bakoitzeko parte-hartzaileen artean interes gatazka sor dezakeen interes pertsonal edo ekonomikoa eduki dezaketenak».

– «Harremanak edo loturak identifikatzeko, tresnak, besteak beste, otsailaren 12ko 241/2021 (EB) Erregelamenduaren 22.2.d.iii) artikuluan aipatzen diren pertsona juridikoen titulartasun errealeko datuak jasoko ditu, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datu baseetan daude-nak, bai eta notarioen eta erregistrozailleen elkargoekin sinatutako hitzarmenen bidez lortu-takoak ere».

5. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan (“Abstentzioa”) ezartzen da prozeduran esku hartzetik abstenitu beharko direla “administrazioe-tako agintari edo langileak, hurrengo apartatuan aipaturiko egoeretakoren batean daudenean”. Honako hauek dira egoera horiek:

a. Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo besteren batean, baldin eta azken horren ebazpenak lehenari eragin badiezaiokie; sozietate edo entitate interesdunen bateko administratzaile izatea; edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.

b. Ezkontza lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta laugarren mailara arteko odol ahaidetasuna edo bigarren mailara arteko ezkontza ahaidetasuna izatea interesdunetako edozei-nekin, entitate edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, bai eta prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin ere; bai eta haien bu-lego profesional berekoa izatea edo haiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkari itza edo mandataritzarako.

c. Aurreko apartatuan aipaturiko pertsonaren batekin adiskidetasun estua edo ageriko etsaitasuna izatea.

d. Kasuan kasuko prozeduran aditu edo lekuko gisa parte hartu izana.

e. Gaian zuzeneko interesa duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu harremana izatea; edo pertsona horri, azken bi urteetan, zerbitzu profesionalak eskaini izana, edozein mo-tatakoak eta edozein egoera edo tokitan”.

Bigarrena. Adierazpen hau sinatzen den unean, eta eskura duen informazioaren arabera, ez dagoela interes gatazkatzat jo daitekeen ezein egoeratan, ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriaren laugarren apartatuan jasotakoaren arabera, dirulaguntzak lizitzatzeko/emateko prozedurari eragin diezaiokeenik. Ez dagoela EBko Finantza Erregelamenduaren 61.3 artikuluan adierazitako interes gatazkatzat jo daitekeen ezein egoeratan, eta ez duela Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluko abstentzio kausarik, emakida prozedurari eragin diezaiokeenik.

Hirugarrena. Konpromisoa hartzen duela kontratazio organoari/ebaluazio batzordeari eta/edo hierarkian gorago dagoenari edo prozeduraren ardura duen organoari jakinarazteko, lu-zamendurik gabe, interes gatazkako edozein egoera edo abstentzio kausa, egoera hori sortzen duena edo eragin dezakeena.

Laugarrena. Badakiela interes gatazkarik ez dagoela dioen adierazpena faltsua dela frogatzen bada, aplikatu beharreko araudiak ezartzen dituen diziplina ondorioak, ondorio administratiboak edota judizialak ekarriko dituela.

Bigarrena. Iruzuraren aurkako plana udal zerbitzu guztiei helaraztea, jakinaren gainean egon daitezen eta ondorioak izan ditzan.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn eta udalaren web orrian argitaratzea, guztiek horren berri izan dezaten. Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Burgelu, 2023ko maiatzaren 5a

Alkate-lehendakaria

NATIVIDAD LOPEZ DE MUNAIN ALZOLA